

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

351

Ekainak 15, 2019

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Alarde tradizionaleko erreportajea
- 6** Entseguak
- 7** Alarde publikoko erreportajea
- 9** Alarde publikoko elkarrizketa
- 10-13** Alarde Tradizionaleko kantinerak
- 14-15** Alarde Publikoko kantinerak

Argazkia: Estudio Gover



24 Etxebizitza Hondarribian

2, 3 ETA 4 LOGELAKO "SmartHome" ETXEBIZITZAK,
trasteleku eta garajearekin.
Baxu eta atikoek terraza zabalak dituzte.

Informazioa:

667 81 68 58

www.zumarpe.com/capuchinos Hondarribia



ZUMARPE 

SALMENTA BULEGOA:
Luis Mariano Kalea 4, IRUN

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



G52489: 1908 eta 1920 urteen arteko Alarde baten argazkia.

G40978: Artilleriako bateria, kantinera kanoietan desfilatzen 1914 eta 1915 urteen artean.

G50081: Miguel Abad Fernandez, kapitaina, eta San Miguel konpainiako ki-dean San Juan plazan 1920ko harmarkadan.

198 zenbakia darama 1919 urteko ekainaren 15ean argitaratutako "El Bidasoa" astekariko aleak. San Pedro eta San Martzial jaien ingurukoak dira zenbaki honetako artikulu gehienak.

"Antes de las fiestas" tituluarekin jaietako programa eratzten duten udaleko langileen lana miresten da. "No hay dicha completa" tituluaren azpian, berriz, "RE-LA-MI-DO" k jai egunetako eguraldiaren iragarpina egiten du. Aurrerago, "Cosas que se pasan" atal ezagunean kantinera "egoki" bat aurkitzeko "zailtasunez" hitz egiten da. Gainera, astekariaren amaiera aldera jai egunetan zehar egingo diren zezenketa ekitaldiak nabarmentzeko artikulu bat dago.

Kirol kronikari zuzenduriko atala ere hiriko jaiak direla eta antolatzen diren kirol-ekitaldien albisteez osaturik dago. Lehenik eta behin Colon taldearen garaipena aipatu Hispania taldearen aurrean. Ondoren, San Pedro krosekoi izen-emate eta sariez hitz egiten da. Horren ostean, jaien inguruan antolatutako arraun eta igeriketa txapelketak aipatzeko ere.

"Anotaciones de un chismoso" atalean, berriz, aurreko zenbakian bandaren berrantolaketa aipatzen zuen artikuluari erantzuten dio C.P. inzialekin sinatzen duen astekariko kolaboratzaileak. Lehen orriko artikulu txiki batean Hondarribiko herritarren desinformazioa salatzen da ere. Bigarren orrialdean, astekariko "Mañuel" kolaboratzailearen humorea eta lana eskertzen du irakurle batek. Walter Germanen heriotzaren berri ematen duen albistearen ostean, Aurelio Lopez Hernandezek Aduanako Administrazioan egindako lana eskertzeko artikulu bat idazten da bere erretiroa dela eta.

Orain arte egin bezala, "Hace años ..." atalak 1883 urtean argitaratutako albisteen errebasoa egiten du. "En el municipio" atalak, berriz, azken udal batzarrean onartutako akordioen berri ematen die herritarrei. Tren geltokian egun batzuetan zehar ikusgai egon den tankearen albistearen ostean, Lorea-Bidea pilotaleku eta hiriko antzokietako programazioa errebasatzen da, publizitate orriarekin zenbakia amaitu aurretik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)
Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinuaren eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Real Union eta Ama Shantalen konpainiaren mendeurrenaren ospakizunean murgildurik daude



G21045 - Ama Shantalen konpainia 1960 urtean
G21539 - Ama Shantalen konpainia 1950 urtean
G21814 - Real Union konpainia 1959 urtean



2019 urtean zehar Real Union eta Ama Shantalenek konpainiaren sorreraren mendeurrenaren ospakizunetan murgildurik daude. 100 urte horien atzean lan asko ezkutatzaren da eta, horregatik, data berezi hau behar bezala ospatzeko ekintza eta ekitaldi ugari antolatu dituzte Alarde Tradizionaleko bi konpainiek. Ospakizunez gain, urteurren berezi hau, konpainien historia eta sorrera errepasatzeko aitzaki bikaina izan dira.

Konpainien sorreraz hitz egiteko, historian 1919 urtera arte atzera egin behar da gutxienez. Testuinguruan kokatzeko, 1915-1918 urteen artean, Lehen Mundu Gerraren ondorioz ez zen San Martzialen omenez alardetik ospatu Irunen. Gerra igaro ostean eta gatazkak eragindako ondorioak gainditzeko nahiarekin, Irungo herritarren artean gizarte mugimendu ezberdinak sortu ziren hiriko jaien eta zehazki alardearen ospakizuna berreskuratzeko asmoz.

Real Union konpainia, zehazki, 1919 urtean sortu zen, alardea berreskuratzeko nahi horren barnean, hiriko auzoren bat ordezkatzeko ez zuen konpainia sortzeko lagun talde baten ekimenetik. Honela, Herriko Lehen Konpainia izan zen bere sorreran, orain, ordea, Herriko Seigarren konpainia bada ere. Ama Shantalen, berriz, Herriko Bigarren Konpainiaren tituluarekin jaio zen Santa Elena kalean bizi zen Angel Martinen esfortzuei esker. Izan ere, konpainiaren eraketarako oztopo ugari topatu zituen bidean bultzatzaileak, baina, arazoei aurre egin eta alardean parte hartzea lortu zuten lehen aldiz konpainia 44 kidek osatzen zutela.

Gerra zibila

Hogeita hamarreko hamarkadan Espainian izandako Gerra Zibilak ondorioak eragin zituen ere alardearen ospakizunean. Izan ere, 1937 eta 1939 urteen artean ez zen Alar-

derik ospatu Irunen. Hala ere, urte horietan zehar San Martzialera botoa berritzera igotzeko prozesioak antolatu ziren.

Izendegiaren sinbologia

Bi konpainia hauen izenen atzean askorentzat ezezagunak izan daitezkeen sekretuak ezkutatzaren dira. Esaterako, Real Union konpainiaren izenak hiriko futbol taldearekin lotura estua dauka, izan ere, 1915 urtean "Irun Sporting Club" eta "Racing Club de Irun" taldeen fusiotik sortutako futbol talde berriaren izena hartzen baitu. Gainera, alardearen historiak erakusten duenez, konpainia 1980 izena aldatzeko beharrean aurkitu zen ordenantza baten ondorioz. Horren ondorioz, Mendibil izenez ezagutu zen 1991 urtera arte eta, azkenean, konpainiak jatorriko izena berreskuratu ahal izan zuen.

Bestetik, Ama Shantalen konpainiak Irungo Estebenea ibaiaren bazter batean kokaturik dagoen ermitari erreferentzia argia egiten dio bere izenaren bitartez. Hasieran konpainiaren izena gazteleraz idazten zen, baina, 1980 urtetik aurrera euskaraz idazten hasi zela erakusten duten arrastoak daude, adibidez, konpainiako banderina. Gainera, izena, "sh"-z idazten da, hain zuzen ere, aintzinako euskara mantenduz.

Ospakizun ekitaldiak

Mendeurrenaren ospakizunerako Ama Shantalen zein Real Union konpainiek hainbat ekitaldi antolatu dituzte azken hilabeteetan zehar. Maiatzaren 11ean, Ama Shantalen konpainiak mendeurrenaren ospakizunerako egun oso bat dedikatu zuen. Real Unionek, berriz, ekainaren 15ean antolatu zituen mendeurrena ospatzeko bazkaria eta kontzertua. Hortaz gain, bi konpainiek argazki erakusketak antolatu dituzte ere, irudi eta dokumentuen bitartez konpainiaren historia gaurkotasunera hurbiltzeko asmoz.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka suzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com





Ekainean sanmartzial giroa nagusituko da Caser Residencial Anakako egoitzan



Ekaineko hilabetea iritsi eta Caser Residencialek Irungo Anaka auzoan duen egoitzako egoiliarrek Irungo jaiak ospatzeko prestaketa lanekin hasten dira. Izan ere, ekaineko hilabetea ekintza berezietan bateriko hilabetea da, guztiak sanmartzialekin loturik. Hortaz gain, egoitza girotzeko egoiliarrek apainketa lanekin laguntzen dute.

Urtero moduan, hiriko jaien harira, Anakako egoiliarren artean kantineira eta sarjentu bat aukeratzen dituzte. Egoitzako egoiliar, langile eta senideen artean hautagaiak bozkatu eta maiatzeko hilabetearen amaieran aukeratu zituzten Simone Remond kantineira eta Elias Lopez sarjentu. Bi egoiliar hauek protagonismo berezia izango dute egoitzan aurtengo sanmartzialetan.

Simone Remond, Caser Anakako kantineira azaldu duenez, "hautatua izan nintzela esan zidatenean sorpresa hartu nuen, ez bainuen espero, baina, atsegina da gure adinarekin ere honelako gauzetarako hautatzen zaituztela ikustea". Tarragonan jaio bazen ere, 1941 urtetik Irunen bizi da eta gaztetan sanmartzialak nola bizi zituen ondo gogoratzen du: "Goizeko 4:00etan dantzalditik atera eta zuzenean Diana ikustera joaten ginen, etxetik pasa gabe, ostean, Alardea ikusteko". Gainera Ekainaren 15ean San Miguel eta 22an Anakako konpainiekin entseguak egiteko gogoak dauzkala onartu du.

Elias Lopez, aurtengo Caser Anakako Sarjentu, ordea, Izabako aranean jaio, baina, 56 urte daramatza Irunen bizitzen. Eliasek azaldu du ez duela inoiz alardean desfilatu, "40 urtez Irungo autobusetan lanean ibili naiz eta San Martzial egunean lan egin dut beti". Hala ere, aurtun Anaka eta San Miguel konpainiarekin batera desfilatzeko aukera izango du egoitzan barrena eta inguruko kaleetatik. Gelan soldadu trajea prest duela azaldu du Eliasek eta entsegu egunetan ilobak bera ikustera hurbilduko direla espero du.

Caser Anakako sanmartzialetako ekintzak:

Ekainak 20, osteguna:

San Martzialetako bingo berezia arratsaldeko 18:00etan 0 solairuan.

Ekainak 21, ostirala:

Irungo bideoen erreproduktzioa arratsaldeko 17:30etan erabileran anitzeko gelan.

Ekainak 22, larunbata:

Anakako konpainiaren alardea arratsaldeko 18:00etan.

Ekainak 22, astelehena:

San Juan eguna dela eta, desioen eskaria.

Ekainak 27, osteguna:

15 eta 22 egunetako argazkien proiektzioa arratsaldeko 17:30etan erabileran anitzeko gelan.

Ekainak 28, ostirala:

Caser Anakako kantineiri omenez, San Vicente de Pauleko majoretten emanaldiarekin arratsaldeko 17:30etatik aurrera 0 solairuan.

Ekainak 30, igandea:

Solairuetan San Martzialetako alardearen emankizuna eta menu berezia.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Udako Eskaintza 2019



aek udako
plazer txikiak

aek

euskara praktikoa



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK

Azterketak prestatzeko
ONLINE IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

udabarnetegiak@aek.eus

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



Euskara ikastaroak

MINTZA IKASTAROA

Ikastaro trinkoak: A1, A2, B1, B2 eta C1

Uztailean 80 ordu

136€

Astelehenetik ostiralera

9:00-13:00

Izena emateko azken eguna: Ekainak 27

Mingainari eragiteko aukera ederra

irun@aek.eus

943628834

2019KO ALARDEETAKO ENTSEGUAK

ALARDE PUBLIKOA

Danborrada:

27an

21:00etan Peña kalean.

29an

20:00tan Peña kalean.
21:00etan Urdanibia plazan.

Banda:

29an

20:00tan Peña Kalean.
21:00etan Urdanibia plazan.

Landetxa:

21, 23 eta 25ean

20:00tan Bizilagunen elkartean.

Bidasoa:

20, 21 eta 24ean

20:00tan Palmera-Monteron, Tahona ondoan.

Olaberria:

19an

19:30etan Willy ostatuan.

21 eta 24ean

20:00tan Willy ostatuan.

Ama Xantalen:

20, 21 eta 24ean

20:30etan Peña kalean.

Lapitze:

19, 21 eta 25ean

20:00etan Pio XII plazan.

Anaka:

19 eta 26ean

20:30etan Txanaleta plazan.

Santiago:

18, 20 eta 24ean

20:30etan Oiasso museoa.

ALARDE TRADIZIONALA

Danborrada:

26ean

23:00etan Urdanibia plazan.

27an

22:00etan San Juan plazan.

Banda:

24ean

21:30etan San Juan plazan.

26ean

23:00etan Urdanibia plazan.

Behobia:

20 eta 21ean

21:00etan Kirola tabernan.

25ean

20:45etan Junkal plazatzooan.

Ventas:

15, 23 eta 25ean

21:30etan Ongi Etorri tabernan.

Meaka:

21, 24 eta 25

21:00etan Errota Zaharren.

Bidasoa:

18 eta 20ean

21:00etan Alundan.

25ean

20:45etan Junkal plazatzooan.

San Miguel:

21, 24 eta 25ean

21:00etan Geltoki kalean.

Olaberria:

21, 24 eta 25ean

20:30etan Estebenean.

Ama Shantalen:

20, 21 eta 25ean

21:15etan Urdanibia plazan.

Anaka:

21, 24 eta 25ean

21:00etan Fabiola Erregina kalean.

Buenos Amigos:

19, 21 eta 25ean

21:15etan Erromes plazan.

Uranzu:

20, 21 eta 25ean

21:15etan Uranzu kalean.

Santiago:

21, 24 eta 25ean

20:45etan Platanondoan plazatzooan.

Lapitze:

21, 24 eta 25ean

21:00etan Aduana kalean

Real Union:

21, 24 eta 25ean

21:00etan Zabaltza plazan.

Azken Portu:

21, 24 eta 25ean

21:00etan Auzo elkartean.

Belaskoenea:

20, 21 eta 25ean

21:00etan Belaskoeneako Auzo elkartean.

IRUNERO

Gora San Martzial!

Iruneroren partetik jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Errealitate bihurtutako amets baten iragana eta oraina



Argazkia: Estudio Gover

Haizea Sendón Alarde Publikoko Santiago konpainiako kantinera izango da 2019 urtean. Oihana Picosek, berriz, duela 20 urte kantinera gisa alarde publikoan lehen aldiz parte hartzeko aukera izan zuen. Elkarrekin kantinera izateak dakartzan emozioak eta zereginak errebasatu dituzte.

Haizeak hitz gutxi behar ditu aurten Alarde Publikoan kantinera gisa ateratzeak eragiten dizkion emozioak adierazteko, izan ere, begien distira bereziak eta aurpegitik desagertzen ez zaion irribarreak argi eta garbi erakusten dute. "Kantinera izatea errealitate bihurtutako ametsa da niretzat". Kantinera izango zelaren berri ona etxean familiarekin zegoela jaso zuen.

Oihana Picosi, ordea, gauza asko etortzen zaizkio burura kantinera bezala desfilatu zuen urtea oroitzera. Picosek azaldu duenez, "deskubrimendu bat izan zen niretzat alardea lehen aldiz barnetik bizitzea". Ordura arte alardea ondo ezagutzen zuela uste zuen Oihanak, baina, esperientzia horren ostean, alardea bizitzeko modu ezberdin bat topatu zuen. Bigarren alardea eta garai nahasiak izan arren, Oihanak famili eta lagunaren aldetik berotasun handia sentitu zuela gogoratzen du. Gainera, alardeari esker jende berri asko ezagutzeko aukera izan zuela aipatzen du ere.

Kantinera izateak prestaketa-lan eta zeregin ugari dakartzen arren, Haizeak eginbehar guztiak kontrolpean dauzkala baieztatzen du pozik. Zeregin horietan laguntzeko Kantineren Komisioak lan garrantzitsua egiten du urtero. Oihana, kantinera izan ostean, Kantineren Komisioan laguntzaile gisa aritu zen zenbait urteetan zehar. "Kantinerari berotasuna eta aholkuak ematen dizkiegu bertan, jantzien prestaketarekin laguntzeaz gain". Kanti-

neren Komisioarekin izandako azken bileraren ostean, Haizeak kantinera jantzia eta barrika etxean dauzka jada.

Ekainaren 28an Oihana eta Haizeak berriro elkar ikusteko aukera izango dute. Izan ere, 2019ko alardeko kantinerak aurkeztuko dira egun horretan eta, aurreko urteetan bezala, Oihana Picos aurkezle lanetan arituko da. Egun horren inguruan Oihanak azaldu du, "niretzat opari bat da egun hori ikuspuntu horretatik bizitzeko aukera izatea, plaza beteta ikusi eta jendearen aurpegietan emozioak nola islatzen diren ikusteko". Beste aldetik, Haizeak, Kantineren Aurkezpenaren eguna iristeko gogotsu dagoela adierazi du, berak azaldu duenez, "aurtengo jaietatik gehien espero dudana unea da".

"Kantinera izatea errealitate bihurtutako ametsa da niretzat"

Haizea Sendón, 2019ko Alarde Publikoko Santiago konpainiako kantinera

Oroitzapenak biltzeko urtea

Oihana Picosek azaldu duenez, milaka oroitzapen dauzka kantinera izan zeneko urtearekin loturik. Sentimendu eta bizipen berriez bateriko urte hartan erabilitako abanikoak eta bestelako gauza pertsonalak gordeta dauzkan arren, oroitzapen gehienak buruan gorderik gelditzen direla onartzen du.

Egun, teknologien garapenari esker, oroitzapenak beste era batera gordetzeko aukerak daude ere. Haizea Sendónnek bere blog pertsonalaz baliatzen da bere bizitzako gertakariak biltzeko. "Blogak Bailarina con síndrome de down izena dauka" azaldu du Haizeak eta, amaren laguntzaz, kantinera bezala izandako bizipenak bertan biltzeko asmoa du. Orain arte jasotako opariak edo aurrera eramandako prestaketa lanen argazkiak ikusgai daude jada eta jai egun nagusien ostean bizitako esperientziak irakurri ahalko dira bertan hemendik gutxira.

"Deskubrimendu bat izan zen niretzat alardea lehen aldiz barnetik bizitzea"

Oihana Picos, duela 20 urte kantinera izandakoa

Aholkuak

Haizea Sendónnek sorpresa eta lehen esperientziez bateriko San Pedro eta San Martzial jaiak biziko ditu aurten. Horretarako, gurasoak eramango ditu alboan uneoro. "Aurtengo sanmartzialak poztasunez gogoratu nahiko nituzke", azaldu du Santiago konpainiako 2019ko kantinerak. Oihanak, ordea, kantinera urteaz disfrutatzeak aholkua eman dio, orain arte aurreko urteetan egin bezala. Hortaz gain, hurrengo urteez disfrutatzeaz gonbidatu du Haizea, alarde honek jaia alde ezberdinetatik bizitzeko eskaintzen duen aukera aprobetxatuz.

Moldatu Home: Etxebizitzak saltzeko era ezberdin bat



Argazkia: Estudio Gover

Urtzi Goiogana Higiezin Agentzia eta Encarni Martinez Home Staging enpresen elkarke-tatik sortutako proiektua da Moldatu Home. Etxebizitzen alokairu edo salmenta zerbitzu integrala eskaintzeko asmotik sortutako elkarketa da hau, higiezin kontzeptu berri aurkezteko. Proiektuaren bultzatzaileek azaltzen dutenez, metro karratuak saltzeaz gain, bizilekuak saltzea dute helburu.

Zertan datza Moldatu Home proiektua?

Encarni: Home Staging-a Estatu Batuetan hasi eta urte ugari daramatza martxan bestelako herrialdeetan. Krisia dela eta Espainian asko indartu den mugimendua da eta terminoaren itzulpenak dioenez etxearen eszenaraztea bilatzen da, indarguneak azpimarratzeko.

Urtzi: Moldatu Home etxearen antolatze eta moldatzetik dator. Horretarako, etxea prestatu, argazkiak erakargarriak atera eta ahalik eta bisita gehien lortzen saiatzen gara salmenta aukerak handitzeko.

Nolako eragina izan dezake interneten bilakaerak zuen negozioan?

Urtzi: Gaur egun internetek gero eta botere handiagoa du eta irudia zaintzea oso garrantzitsua da. Mundua interneti esker eraldatzen ari da, baita higiezin agentzietan. Horretarako, Facebook, Instagram eta YouTube bezalako sare sozialetan presentzia izate oso garrantzitsua da.

Encarni: Aro digitalean etxeak saltzeko bideak aldatu dira. Lehen egunkarrietan begiraten zen, baina, egun errealitatea bestelakoa da. Egun erosleen portzentaje handi batek interneten begiraten du, beraz, argazki on batek pisuaren salmentan lagun dezake.

Zergatik erabaki zenuten proiektu honetan murgiltzea?

Encarni: Ni berandu konturatu nintzen nire bokazioa beste bat zela eta ez nuen horren inguruko ikasketarik. Horregatik, bozkazioa nire lanean murgiltzeko Home Staging-aren inguruko ikastaroak egiten hasi nintzen eta argazkilaritza ikastaroak egin ditut ere.

Urtzi: Nire kasuan, 13 urtez aeronautikako sektorean lanean egon ostean, Irun ingurura itzuli nahi nuela argi neukan. Higiezin agentziaren mundua beti gogoko izan dudanez, nire kontu ikastaro ezberdinak egin nituen, izan ere, beste higiezin agentzietatik ezberdina izango zen agentzia bat sortu nahi nuela argi nuen.

Zein balorazio egiten duzue orain arte izandako esperientziaz?

Encarni: Oso pozik gaude eta emaitza onak lortzen ari gara. Egoera txarrean dauden etxebizitzak aurrera atera eta saltzeko gai garela ikusi dugu. Horrela, denbora asko pasa gabe prezio onean saltzea lortzen dugu. Bezeroak pozik daude eta baita gu ere.

Urtzi: Gero eta gehiago dira guk erabiltzen ditugun salmenta teknikak ezagutzen dituzten pertsonak eta guran konfiantza jartzen dutenak. Hasiera zailagoa izan zen, baina, orain lan erritmo handiagoa daukagu.

Nola dago egun merkatuaren egoera?

Urtzi: 2018 urtea nahiko ona izan zen eta 2019, berriz, merkatua geldiago dabil. Hala ere, alokairuan zein salmentetan prezioak gora doaz. Ez dakigu bilakaera nolako izango den, baina, orain pisu bat saltzeko une egokia dela uste dugu.

Zer esango zeniekete etxea saltzea pentsatzen ari diren horiei?

Encarni: Gure proposamena entzutera anima daitezela, izan ere, etxe bat ondo prestatu ostean errazagoa da salmentara iristea.

Urtzi: Etxebizitza bat saldu nahi denean higiezin agentzia ezberdinak bisitatzea gomendatuko nuke. Agentziek etxea saltzeko zer egingo luketen ezagutzeko, argazkiak atera eta interneten jartzeaz gain, hori bezeroek bakarrik egin dezaketelako egun, baina, guk zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu.

Ardurak txandakatuz, etorkizunerako bidea eraikiz

Ion Martinezek 12 urte daramatza Alarde Publikoko Musika Bandako zuzendari lanetan eta hauxe izango da kargu hori beteko duen azken urtea. Itsaso Cañadak 2009 urtean desfilatu zuen lehen aldiz kantinera bezala eta, 10 urte beranduago, Landetxa konpainia gidatzeaz arduratuko da. Horrela, karguak eta ardurak esku batzuetatik besteetara igaroko dira alardea aurrera ateratzeko.

Itsaso nola ikusten duzu zure burua kapitain moduan?

Itsaso: Ondo, erronka bat da eta gauza asko daude ikasteko. Kanpoan zaudenean ez zara konturatzen hainbeste gauza prestatu behar direnik. Hala ere, gogo asko daukat.

Kapitain bezala zure lehenengo urtea izango denez, aholku asko jaso dituzu?

Itsaso: Bai, orain arte Landetxa konpainiako kapitaina izan den Simonekin hainbat aldiz elkartu eta beste urteetan berak erabilitako apunteak pasa dizkit. Oso lagungarria izan da hori niretzat, izan ere, hau guztia bakarrik ikastea oso zaila izango litzatekeelako.

Zure kasuan Ion, zaila egiten zaizu zuzendari karguari agur esatea?

Ion: 12 urteren ostean, lan asko egin ondoren erreleboa beste bati pasako diot. Gainera, aldaketa beharrezkoa dela uste dut. Gogoak penarekin nahasten zaizkit 2019a urtea polita izango dela ziur nagoelako.

Datorren urtetik aurrera zuzendari kargua nork beteko duen erabaki duzue?

Ion: Bai, Maddik hartuko du nire lekukoa. Musika Bandako kidea da, oso pozik gaude hartutako erabakiarekin eta datorren urtean behar duen guztian lagunduko diot. Gainera, Musika Bandaren barnean zereginak asko banatzen ditugunez oso erraza da dena prestatzea.

Jai egun garrantzitsuez gain, urtean zehar zeregin ugari dituzue konpainiako buruek?

Ion: Bai, urtarrila edo otsailetik aurrera bilerekin hasten gara. Ordu asko dedikatzen dizkiogu, baina, badakigu non sartzan garen eta gogoz beterik prestatzen dugu dena. Detaile asko, entseguak, kantinerak, munizioa eta beste hainbat gauza lotu behar dira eta.

Inguruan lantalde on bat izatea garrantzitsua da lana arintzeko?

Ion: Musika Bandaren kasuan lantalde gisa funtzionatzen dugu, honela, zuzendariaren lan-zama arintzeko. Dena errazagoa baita horrela eginez gero.

Itsaso: Landetxan apirilean biltzen hasi ginen eta gora-

“Kanpoan zaudenean ez zara konturatzen hainbeste gauza prestatu behar direnik”

Itsaso Cañada, Landetxa Konpainiako kapitaina berria



Argazkia: Estudio Gover

behera guztiak denon artean konpontzen ditugu ere. Niretzat oso lagungarri da konpainiako lehenengo ilaran desfilatuko duten txilibitoen laguntza, izan ere, haiek ni baino esperientzia gehiago daukate hor aurrean.

Kantinerari harrera beroa egin diezue aurten ere?

Ion: Aurtengo kantinera nire laguna da, Helena, beraz,

“Gogoak penarekin nahasten zaizkit 2019a urtea polita izango dela ziur nagoelako”

Ion Martinez, azken urtez Musika Bandako zuzendaria

ezin dut niretzako amaiera hoberik eskatu. Gainera, 12 urte hauetan lagun pilo bat atera dira kantinera bezala nirekin eta oso garrantzitsuak izan dira niretzat.

Itsaso: Aurtengoa nire lehenengo kantinera izango da eta, gainera, ikastolako lagun baten ahizpa denez, familia ezagutzen dut. Bera oso motibatuta dago gauzak prestatzen eta urte oso polita izango dela uste dut.

Nolako egoeran bizi du alardeak egun?

Ion: Bi hamarkaden ostean egoera asko hobetu dela uste dut. Duela 12 urte Musika Banda 50 pertsona inguruk osatzen zuten eta aurten 100 musikarira iristeko zorian gaude, nahiz eta oraindik errefortzu batzuk behar ditugun. Alardea asko handitu eta hobetu da, giroa lasaitu da, beraz, etorkizunerako bidean gaude.

Itsaso: Oraindik gauza batzuk hobetu daitezkeen arren, hauxe da jarraitu beharreko bidea.

ALARDE TRADIZIONALEKO KANTINERAK 2019

Argazkiak: Estudio Gover



ZOILA ZARAGÜETA ARAMBURU
Danborrada



UXUE SANSIÑENA BLANCO
Banda



ANE MIREN GARCIA CALZADA
Zalditeria



OLATZ ZABALA DOMÍNGUEZ
Behobia

TXINTXO
Gora San Martzial!
Hurbildu zaitetz gure pintxoak probatzera
943 10 33 56
Dario de Regoyos Kalea, Irun

TABERNA - JATETXEA



GALIZIAKO
ESPEZIALITATEAK

- Banketeak
- Jaunartzeak
- Despedidak

ATSEDENALDIA: Astelehen eta ostagun arratsaldean

Zubelzu, 6 - IRUN - Tel 943 61 50 01



IRATZE MORÁN CAÑAS
Ventas



EIDER GÓMEZ MÁRQUEZ
Meaka



IRENE ROLLÁN BIURRARENA
Bidasoa



MAITANE GARCÍA PEÑA
San Miguel



LEYRE LÓPEZ RODRÍGUEZ
Olaberria



ANA AGUIRRESAROBE RUBIO
Ama Shantalen




Gora Irun
Gora San Marcial

AVDA.LETXUNBORRO 100, 2º
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
info@fotogover.com





ALAZNE ARTEAGA VÁZQUEZ
Anaka



JUNKAL CARRILLO MITXELENA
Buenos Amigos



SARA BORDONABA OLAIZOLA
Uranzu

Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.
¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Poligón de Uriztu II (plaza Urdimburu ondoan) - 20324 Irun
943 615 184 / 687 572 920
bainu.irun@gmail.com



ALEX ARELLANO BURUTARAN
Santiago

Bizi San Martzialak Txingudi Onlinen
Jentako bitxioak, oharak, erabak.

Gora San Martzial!





NAIARA OYÓN JABALERA
Lapitze



NEREA GARCÍA AMORÓS
Real Unión



UXUE IÑARRA NICOLÁS
Azken Portu



IZAR TXURI REGUERO HIGUERAS
Belaskoenea



JUNE GRIJALBA SANTOS
Artilleria



Gora San Martzial!

MARRIED

novias

**ALARDE
PUBLIKOKO
KANTINERAK
2019**



Melisa Vesga Díaz - Danborrada



Helena Benet Velasco - Banda



Marina Romo Ruiz - Olaberria



**Cristina Echeveste Martínez
Ama Xantalen**



Irene Goenaga Martínez - Lapitze



Naiara Sorzabalbere De la Linde Zalditeria



Nerea Irazoki Arbelaitz - Landetxa



Ainhoa Massanet Olaizola - Bidasoa



Andrea Monsalve Beltrán - Anaka



Haizea Sendón Verdini Santiago



Paula Estévez Arburua Artilleria Bateria

JECA
JECA
JECA

*Gora Irun
Gora San Martzial*

**San martzialeko
soldadu uniforme osoa**
(Elosegi Txapelarekin)

68€

Serapio Mujika Kalea, 5, Irun - 943 613932

